

Aretxa gazeta

Aretxabaleta • 1996ko abuztuak 30 • 104.zka. •



Andramaixak argazkitan



Mégane

**Familia
hazi
egin da**






Zer daukazu esateko Andramaixei buruz?

*Jose Alberto Delgado
(Langilea)*

Ondo pasatu dut Andramaixetan. Gaueko mar-txa, horteroen eguna eta sokamuturra gustatu zaiz-kit gehien.

Ligatu? Apurtxo bat bakarrik.

Datorren urteko Andramaixetarako auto-krossa jarriko nuke.



*Eugeni (Baserritarra)
Pepi (Jubilatua)*

Animazinue falta izan da jaixetan. Azken egu-nean ez du ia inork horte-roarena egiten irten. Jendea gehiago animatu behar da.

Jaixetako onena, eee... ja, ja, ja... Barrakak hortik kendu beharko lirateke eta Mekan jarri.



*Jose Aranzadi
(Langilea)*


Azken urteetan gero eta giro gutxiago egon dela uste dut Andramaixetan. Gauera begira egon barik arratsaldean kalera irten eta giroa sortu behar dute herriko koadrilek. Egunez jai animatuagoak behar dira, bestela oso ondo.



*Koldo Zubizarreta
(Langilea)*

Oso ondo. Zezenak oso ondo egon die. Bestalde uste dut Andramaixetan koadrila giro hori falta dela. Herritarrak gehiago sartu behar dira jaixetan.

Aurten ekintza berriak eta politik egon dira baina hurrengo urtera begira publizitate gehiago egin behar zaie.



*Jose Luis Etxebarria
(Langilea)*

Nahiko ondo joan die Andramaixak. Abuztuan lagun asko kanpoan egoten da baina bertan gelditzen dienak oso ondo pasetan daue.

Jaixetan giro ona egon dala uste dut.



*Nagore Olave (Langilea)
Virginia Morales (Ikaslea)*

Orokorrean oso ondo egon die. Andramaixak herriko jai onenak die, lagun gutxi egon arren. Pena bat da giroa gauez bakarrik egoten dena eta egunez lagun gehiago animatu behar da.



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria



Kultur sailak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Iosu Urkia. **Erredakzio-kontseilua:** Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantzazu Abasolo, Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Ana Eriz. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Loramendi E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Bazkaria, omenaldiak eta partidua, UDAko 50. urteurrena ospatzeko

Apirilaren 21ean, UDAko 50. urteurrenaren barruan futbolari eskainitako ospakizunak burutu ziren. Egun horretan Ibarra futbol zelaiko eserleku eta aldagelen eraikuntza inauguratu zen. Era berean, Juan Arregi eta UDAko lehen plantila omendu zen.

Ekintza aipagarriena, Erreala eta Alavesen arteko partidua izan zen.

Goizean goizetik Aretxabaletako bandak Angel Barandiaranen gidaritzapean irten zuen kalera. Eguerdian bazkaria izan zen Uratz Alde elkartearen. Bertan, 115 bat lagun elkartu ziren, horien artean, lehen plantilako jokalaria; Errealeko eta Alaveseko ordezkariak, Juan Arregi Alaveseko lehendakaria; Paco Arberas, Gipuzkoako entrenatzaileen eskolako lehendakaria; Juan Luis Larrea,



Eserlekuak eta aldagelak inauguratu ziren

Gipuzkoako futbol federazioko lehendakaria, Laurentzi Gana, Euskal futbol federazioko lehendakaria, Arritxu Marañon, Kirol eta Gaztedi saileko diputatua, Bailarako kirol elkarteetako ordezkariak, Gipuzkoako epaileen eskolako ordezkariak, eta UDAko gaur egungo eta lehendakari ohiek osatutako komisia.

Bazkal ostean, Aretxa-

baletako abesbatzak abestu zuen. Honez gain, Juan Arregi, Juan Luis Larrea, Juan Antonio Rodrigex eta Jose Luis Kortabarriaren (lehen plantilako jokalaria), berbek bete zuten ekitaldia.

Juan Arregi eta lehen plantilakoak omenduak

Arratsaldean Erreala eta Alavesaren arteko partidua hasi aurretik hiru

ekitaldi egin ziren Ibarra futbol zelaian.

Lehenik, eserleku eta aldagelen inaugurazio ekitaldia. Bertan, Lora-mendi dantza taldeko neskek agurra dantzatu zuten, Mikel Egizabal abadeak eraikuntza berria bedeinkatu eta Juan Antonio Rodrigex alkateak zinta moztu zuen.

Jarraian, UDAko lehen plantilari omenaldia egin



115 lagun elkartu ziren bazkarian



Juan Arregi, 88 urtetako atxabaltarrari omenaldia egin zitaion UDArekiko beti erakutsi duen jarrera onagatik. Gaur egun Alaveseko lehendakaria da.

zitzaion, eta zelan ez, Juan Arregiri ere bai. 88 urteko atxabaltar hau Alaveseko lehendakaria da gaur egun eta UDArekiko erakutsi duen jarrera onagatik ondo merezitako omenaldia jaso zuen. Bera izan zen oherko sakea egin zuena.

Jokalariak protagonista

Erreala eta Alavesaren arteko partidurako eserlekuak eta futbol zelaia lagun ez gainezka zeuden. Eguraldiak ez zuen asko lagundu baina hala ta ere giro polita sortu zen ikusleen artean.

Erreala 2 eta 0 nagusitu zitzaion Alavesi. Bi golak lehenengo minutuetan sartu zituen Kovacevic-ek. Bigarren zatian Alavesek aukera onak izan zituen partidua berdintzeko, baina ez zuen aukerak ondo aprobetxatzen jakin.

Partidua bukatutakoan ume ugari bildu zen bai aldagela inguruetan eta baita zelaiaren ere jokalariei autografoak eskatzeko.



Lehen urteko plantila omendu zuten

Ekitaldi berean UDAko lehen plantilari omenaldia egin zitzaion Ibarra futbol zelaiaren. UDAko lehenengo jokalariek, ikusleen txalo artean irten zuten zelaira eta oroigarri bana jaso zuten. Ekitaldi osoko une hunkigarrienetarikoa izan zen hau, gaur egun gure artean ez dauden senitartekoak ere bertan izan baitziren.

1946-47koa izan zen UDAko lehenengo denboraldia, eta hauexek osatzen zuten orduko taldea:

Anton Martinez de Agirre, Vicente Gonzalez, Karmelo Legazpia, Ramon Barrutia, Juan Egidazu, Gregorio Bolinaga, Ignacio Ceciaga, Jose Luis Kortabarria, Pedro Ezpeleta, Maximo Uribealago, Jose Mari Izagirre, Tomás Alzola, Cipriano Agirre, Fidel Antxia, Jesus M^a Antxia, Ramón Antxia, Jesus Atxa, Vidal Castro, Cándido Etxeandia, Pablo Ezpeleta, Jose Etxagibel, Ignacio Garcia-Etxabe, Javier Igartua, Mariano Otero, Antonio Uribe-Etxebarria, Santi Uribealago, Jesús Zubizarreta, Jacinto Azurmendi (entrenatzailea), Clemente del Teso (delegatua).


**INDUSTRIALDEA
MEDIKU-ZENTROA**

Luis Orruño
Medikua
Zaraiña
Masaiak eta osteopatia

Industrialdea
Pabelloi F-O b
☎ 79 06 82
ARETXABALETA

**EXPRESS
AKEITEGIA**


Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

 **Zenbaki**

Aholkularitza

Basabe Industrialdea
Aretxabaleta
Tfnoak: 79 88 75
79 75 99

**T
X
I
L
A
R
R
A**



**ELIKADURA
BEREZIA**

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABALETA



**LOGOPEDIA
ZENTRUA**

ARRASATE

HIZKUNTZ-ARAZOAK
HIZKETA ARAZOAK
AHOTS ARAZOAK
IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

Beinke-Loramendi dantza ikastaroa

San Migel jaiak irailaren 27, 28 eta 29an ospatuko dira aurten.

Hori dela eta, TRIL Emakume Taldeak dantza ikastaroa antolatu du. Beinke-Loramendi dantza herrikoia erakutsiko da San Migeletarako prestatzeko.

Astelehen eta eguakotxetan emango da, arratsaldeko 8etatik 9ak arte.

Gogoratu 1994. urtean dantzatu zela lehenengo aldiz dantza hau. Beinke euskera elkarte eta Loramendi ikastolaren bateratzea sinbolizatzen du. Harrezkero urtero dantzatu izan da San Migel jaietako zapatuan.



Apuntatzeko edo berri gehiago izateko deitu edo etorri Loramendi elkartera (telefonoa 77 09 70).

Izena ematean 500 pezeta ordaindu behar da.

Badakizue, aurten ez utzi aukera galtzen eta animatu, erraza da eta. Eta animoak bereziki mutilei.

Arantzazura peregrinazioa

Irailaren 2an ohitura den moduan peregrinazioa egingo da Arantzazura. Batzuk oinez, kotxez beste batzuk eta autobusez joateko modurik ere izango da.

Basotxo jubilatuen etxeak antolatuta esaterako, hiru autobusek irtengo dute Arantzazura.

Udaletxetik, Udal korporazioa, idazkaria eta municipalen burua urtero joan izan dira, aurten gainera oinez joateko asmoa dute. Ia ba animatzen diren.

Besteik barik, egun polita izan dezazutela Arantzazura hurbilduko zareten atxabaltar guztiok.

Andramaixak Arientzan

Kalean Andramaixak pasatu arren, orain Arientza auzoan ospatuko dituzte irailaren 6tik 8ra bitartean.

Egun horietarako hainbat ekintza antolatu dituzte auzokoez.

Irailaren 6an, festei hasiera ona emateko Martin Kabarrixa zintzilikatu ondoren tantaia jasoko da. Jarraian auzo afaria izango da eta ostean Iñigorekin dantzaldia. Afarian Arientzako II. kartel lehiaketaren sariak banatuko dira.

Zapatuko ekintza aipagarrienak, Meza Nagusia, jolasak eta txarri harrapaketa dira, besteak beste.

Domekarako barriz, beste ekintza batzuen artean jolasak eta XI. aro sartzeko txapelketa antolatuta dago. Trebetasunak hortxe neurtuko dituzte arientzarrek. Irabazlearentzat trofeoa eta sorpresa egongo da.

Ilunkaran, tantaia botako da eta jaietako amaiera ona emateko txokolate beroa dastatzeko aukera izango da.

* Martin Kabarrixa nor den jakin gura duzuenok, joan bertara eta galdetu arientzarrei.



ARETXABALETA ITURGINTZA

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA



Iparragirre, 4 Tfnoa.79 21 24

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean

*Oporren atarian
albiste ezkorra,
begi bustiak eta
eztarri lehorra
galdu zintugulako,
halako altxorra!
Egia onartzea
dugu derrigorra
orain egiten zaigu
benetan gogorra.*



**MIREN,
ZURI.**

*Euskara ta Berbari
hitzarmenkidea
gure konpromezuen
gorputz ta idea.
Itzainik barik berriz
luze da bidea
baina esanak ez du
galdu adorea
zurea joan arren
badator gurea.*



LASAGABASTER

Zure Konfiantzako Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

Andramaixak 96



Atzean gelditu ziren

Andramaixak.

Bakoitzak bere

balorazioa egina

izango du dagoe-

neko, iritziak,

jakina, desberdinak

izango dira.

Baina gehiago esan

barik herriko jaien

errepasoa egunez-

egun argazkien

bidez egingo dugu.

Berbek baino

gehiago esaten dute

askotan argazkiek.



Bilik eta Jonek dotore jo zuten txalaparta.

Musean gelditu barik.

Musean jokatzea sakratua da gure herrian. Bezperan jokatu zen mus txapelketa eta guztira 48 pareja apuntatu ziren. Azkenean irabazleak, **Agustin Morales** eta **Fermin Alcalde** izan ziren.

Bigarrenak, **Jose Luis Gorosabel** eta **Jesus Mari Gorosabel**. Hirugarrenak, **Aitor Garciaetxabe** eta **Zigor Bengoa** eta laugarrenak **Bienve Velasco** eta **Javi Perez**. Zorionak guztioi.



Ikurrinari agurra egin zioten dantzariak txistularien doinuaz. Udaletxe aurrean lagun asko pilatu zen jaien hasiera ikusteko.



MIKELOS

Moda
Guztia Zuretzat

Iparragirre 3 ☎ 79 36 67
ARETXABAleta

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABAleta

DOIKALSE

Elektroerosio
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 79 82 44



SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURIUAK

Euskadiko Kutxa
Taldekoa

Errekabarren, 20 behea
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11



Buruhaundi berriak. Pailazo, pirata, eta toreroak. Hori bai, danak okerrak.

Bolotan partaidetza haundia.

Gau aldera bolatokira jende ugari hurbildu zen, batzuk bolotan egitera eta ikustera beste batzuk. Felix harrapatu genuen boloa botaten baina bera ez zen irabazlea izan. Irabazlea, **Luis Gaztañaga** izan zen.



Umek aspertzeko aukerarik ez zuten izan.

Egunero izan zuten parkea herriko plazan. Zezen mekanikoa, gaztelu puzgarriak, trena... ondo pasatzeko aukera ezin hobe.

PAGALDAI

Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA

BERALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

**KIXKOR
TABERNA**


Mitarte 13 ☎ 79 20 60
Aretxabaleta

ANDRA MARI EGUNA



Txistulariak.

Jaietan hor izan ditugu txistulariak goizean goiz diana jotzen. Argazkian meza nagusiaren ostean alkate soinuaz irten zuten udaletxerantz, udal korporazioa atzetik zutela. Oraingoan bandako batzuk ere lagun izan zituzten.



Urteroko banda, baina jendeak gogoko.

Azken urteetako moduan Andra Mari egunean Zumaiako bandak bisita egin zigun. Eguerdiko ordu batetan kontzertua eman zuten herriko plazan. Bertan bildutakoek gogor txalotu zuten emanaldia.

ENBOR

Eloy Borgas Iglesias

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta
Tfno-Faxa: 79 02 51

Mitartegarai

Jatetxea

- Nekazalturismo etxea
- Bertako sukaldaritza

Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51
ARETXABALETA

JOLAS LEKU

Mitarte, 10
Aretxabaleta

IZOTZ Taberna

Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65
Aretxabaleta



Loramendi
Elkarteak
ateratako
pegatinak bere
tartearen izan zuten
jaietan.



Tango ikuskizun dotorea.

Aurtengo ekintza berrien artean Tango ikuskizuna egon zen herriko plazan. Bertan bildu zirenek kantu, gitarra hotz eta dantza ekitaldi zoragarri batez gozatu ahal izan zuten. Batzuk jarrita, zutik beste batzuk, baina plazara hurbildu zirenak gustora egon zirela, hori ziur.

Pelota zalerik ez da gure herrian falta.

Iturrigorri frontoia jendez leporaino egon zen bai Andra Mari egunean eta baita finala jokatu zen egunean ere.




EKIN BIDEO

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak...
Enpresendako promozio bideoak.
Eskola eta Elkarteendako
promozioak eta ekintza bereziak.
Etxeetan grabatutako bideoen
muntaiak.
Otalora 15 • ARETXABAETA •
Tfnoa: 79 78 37

TXIMAK ileapaindegi mistoa

•••••
Herriko Plaza, 5 - behea
Tfnoa: 79 83 64
ARETXABAETA



EGUZKIGRAF
inprimategia



Industrialdea 1-0-4
Tfnoa: 794844
Faxa: 792941



Txirrindulari lasterketan partehartzaile asko

14 taldetako 165 txirrindularik parte hartu zuten, horietatik 116k lortu zuten bukatzea. 134 km zituen ibilbideak, eta esan beharra dago txirrindulariak

gogor ibili zirela ibilbide osoan zehar. Azkenean **Pedro Ferrer**, Kaiku taldekoak ihes egitea lortu zuen eta bera bakarrik sartu zen helmugan. Minutu batera sprintean sartu ziren Patxi Otamendi, Caja Rural taldekoa eta hirugarren Angel Acedo, S.V.C. Seguridad taldekoa.

**Piratak
altxorren bila
herrian.**

Topatu ete zuten azkenean altxorra gure piratek? Horixe ez dakigu. Baina umeez ezin hobeto pasatu zutela, ezin ukatu. Antzerkia, musika, jokuak... denetik egiten zekiten itsaso urrunetako pirata hauek.



Errasti anaiak osterara ere txapelak.

Andra Mari egunean hasi zen jaietako pelota txapelketa. Aurrez aurre Ubera-lñurrategi bikotea Karrete-De Santos bikotearen aurka. Neurketa honetan irabazlea Karrete-De Santos bikotea izan zen. Gaueko bigarren partiduan Salinas-Alonso bikotea Errasti anaien aurka aritu zen. Honako honetan atxabaltarrak jaun eta jabe izan ziren.

Finalak bigarren egunean jokatu ziren, aurrez-aurre Karrete-De Santos-Errasti bikotea. Azkenik neurketa gogor baten ostean 19-22 nagusitu ziren atxabaltarrak. Hirugarren postua lñurrategi-Ubera bikotearentzat izan zen.



Kontuz zezenarekin, hanka horiek igo gora.



La Txusma.

Talde arrasatearrak Baron Rojoren aurretik jo zuen. Lagun asko hurbildu zen taldea ikustera.



Baron Rojo, Heavy zaharra.

Inguruko herrietako lagun asko hurbildu zen gurera Baron Rojo ikustera. Talde zaharrak oraindik ere indarra baduela erakutsi zuen. Arrakastatsua izan zen kontzertua, lekua ere oso aproposa zen.

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANIAK

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Mitarte, 1-Tfnoa: 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

**MENDIOLA
ERRETEGIA**

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45

ESKORIATZA

Kukubiltxo.

Kukubiltxo antzerki taldeak ez zuten hutsik egin eta kalea bete-betean girotu zuten. Algarak ere, han eta hemen entzun ziren. Baina bai ume, gazte eta nagusiek ere, harrituta begiratzen zieten panpin haundi haiei.

Hori bai, dantzan trebeak zirela erakutsi zuten. Gure herriko **Iurgi Etxebarria** ere tartean zebilen.



Zezena protagonista

Bigarren eta hirugarren egunetan zezena izan zen protagonista.

Zezenarekin Durana kaleko balkoi eta inguruak jendez bete ziren, betiko moduan. Batek baino gehiagok susto ederra hartu zuten, baina eskerrak sustoan bakarrik gelditu zela.



HAIZEA AKEITEGIA

Mitarte kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57

Iber

❁ Paperdenda ❁

Otalora, 2 ■ Tfnoa: 79 79 24
Aretxabaleta

ARBULO HARATEGIA

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 79 02 24
ARETXABALETA



Horteroen eguna baina hortero gutxi kalean

Horteroen eguna?

Aurten berrikuntza moduan agertzen zen horteroen eguna jai programan. Hala ta be, ez du arrakasta haundirik izan eta jende gutxi ausartu da hortero jantzita kalera irtetzen. Batzuk ez ziren atzera begira gelditu eta lotsa alde batera utzita argazkiko moduko figurak ikusi zitezkeen kalean. Batek baino gehiagok begia botako ziela hori seguru.



Herri bazkarian giro ona.

Aurten arkupetan egin beharrean, txosnak zeuden arbolapean egin zen herri bazkaria. Leku aproposa herri bazkarirako baina egun horretako beroak ez zuen barkatu. Uste baino jende gehiago animatu zen kalean bazkaltzera eta mahaiekin arazo batzuk ere izan ziren. Azkenean denontzat egon zen lekua.

Batzuk luxozko bazkaria egin zutela esan behar da, langostinoak, txanpaina... eramán zituzten bazkaltzeko. Ondo egin zuten, jaietako azken egunean ondo bazkaldu behar da eta.




Ardoa barrura, txaranga ezaguna.

Txaranga hau ere ezaguna da gure artean, eta euren izenak ondo adierazten duen moduan badute bai ardoa edateko abilezia.





Txosnak jendez gainezka kontzertu egunean.



**Eli,
langostino
danak jan barik, eeee?**



**Honeik ezagunak die, ezta?
Andramaixetako hirugarren
egunien hutsik egiten ez
dauen koadrilie da hau.
Txapela buruen eta ibili
munduen.**



**Salva,
gustora ibili
zinen kantetan,
ezta? Ia, Baron Rojo
taldeak kontratetan zauen hurrengorako.**



**Gaztetxoenek ere bolotan egiteko
aukera izan zuten. Irabazlea, Ion Atxa
izan zen, bigarrena, Jon Rodrigez,
hirugarrena, Gorka Etxabe eta
laugarrena Ander Arrese.**

80. hamarkadan, Coz taldea desegin ostean sortutako taldea dugu Baron Rojo. Heavy metaltzat jotzen du askok talde madrildar honen musika. Euren ustetan barriz, Rock & Roll-a da. Gure herrira etorri zireneko unea aprobetxatuz eurekin berbetan izan ginen.



• Nola sortu zen Baron Rojo?

1980. urtean, Coz taldea desegin zenean beste bide bat hartu behar izan genuen. Beste pertsona batzuekin harremanetan jarri ginen eta urte horretako urria aldera Baron Rojo izenarekin kontzertuak ematen hasi ginen.

• Zein da Baron Rojo taldearen historiala?

12 LP grabatu ditugu gutxigorabehera. Horietatik 6 edo 7 estudiokoak, 3 zuzenekoak eta errekopilazio batzuk. Honez gain disko bat ingelesez ere grabatu genuen eta arrakasta handia izan zuen.

• Nola definitzen duzue egiten duzuen musika?

Jende askok lehenagoko Heavy metal gogorra dela esaten du. Gure ustetan Rock & Roll-a jotzen dugu, nahiz eta batzutan azken hau gogorragoa edo bigunagoa izan. Rock & Roll-ak, izenak dioen moduan gogorra eta indartsua izan behar du gure iritziz. Zeinek entzuten edo idazten duen arabera

BARON ROJO: “Guk jotzen dugun musika Rock & Roll-a da”

gura duen moduan definitzen du.

• Hasierako martxa oraindik ere baduzue?

Baietz uste dut. Lehen argalagoak, iletsuagoak eta guapoagoak ginen eta hau orekatzeko orain

martxa haundiagoa izan behar dugu.

• Generazio berriek jarraitzen dizute?

Bai, gure publikoa gaztea da gehienbat, 18-22 urte. Baina urrezko sasoi haietako jarraitzaile

batzuk ere ikusten dira oraindik.

• Eta Euskal Herrian eman dituzuen kontzertuetan, zer moduz?

Euskal Herrira etorritzen garen bakoitzean pozik itzultzen gara etxera. Hemengo publikoa oso ona dela esan behar da.

• Ezkonduta zaudete?

Bai, denok gaude ezkonduta eta batek ezik beste guztiok seme-alabak ditugu.

• Zer esaten dute?

Gure seme-alabek oso gutxitan ikusi gaituzte jotzen. Gustatzen zaie gure musika baina askotan ezin izaten dute kontzertuetara etorri. Guk lokal itxietan ematen ditugu kontzertu gehienak eta horietara ezin izaten dute gure seme-alabek joan.





Zilarra!

Ez da erraza Aretxabaleta moduko herri batean atleta paraolimpiko bat eukitzea. Atlantako joku paraolimpikoetan zilarrezko domina lortu zuen Joseba Larrinagak maratoiko proban. 2º 35' 45" denbora egin zuen. Javi Conde basauritarrak lortu zuen urrezko domina. Joseba baino 12 minutu lehenago sartu zen helmugan eta hirugarrena Joseba baino 12 minutu beranduago. 5.000 metroan ere ondo ibili zen Joseba, 5. postua lortu baitzuen.

Atlantara abiatu aurretik bere ilusio guztiak maratoian jarriak zituela komentatu zigun Josebak. Orain bere helburuetariko bat beteta ikusi du. Lortu du!

AUPA JOSEBA !!



Kurtzebarriko eguna

Aurten UDAko 50. urteurreneko ekintzen barruan sartuko da Kurtzebarriko eguna. Irailaren 8an ospatuko da eta Murrukixo eta Zaraia mendi taldeek ekintza ugari antolatuko dute egun honetarako. Urteroko moduan meza izango da goian. Eguna edo goiza pasatzera lagun asko animatuko dela espero da.

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

**Artano
Taberna**

Herriko Plaza
ARETXABAleta



**TABERNA-BERRI
JATETXEA**

Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABAleta

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK

DISEINUA

APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta


**Dorleta
Taberna**

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
Aretxabaleta

Martín
RELOJERIA • PITXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzuan

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72



Gurasoei, aiton-amonei askotan entzun diegu jaietan diru gutxikin baina ondo pasatzen zutela. Izan ere, garai batean ez zegoen gaur egun besteko gasturik. Hori bai, mahai gainekoa sakratua izaten zen orduan ere. Entremesen ostean oilaskoa janari preziatua zen Andramaixetan. Etxeetan konbidatuak egoten ziren, eta mahaiaren inguruan familia haundia biltzen zen jai egun hauetan.

Mondraueko banda, barkileroa..., garai bateko oroitzapenak besterik ez dira.

Musika, jaietako zati garrantzitsua zen. Plaza lagunez betetzen zen banda eta musika zegoenean. Gainera, Andramaixetan inguruko herrietako jende guztia hurbiltzen zen gure herrira. Jakina, garai haietan ez zegoen opporetan kanpora joateko ohiturarik eta herriko jendeak ere ez zuen jaietan hutsik egiten.

Hirugarren eguna izaten zen egunik girotuena. Goizean goiz buruhaundiek irtetzen zuten kalera. Ume guztiak buruhaundi izateko gertu egoten ziren eta buruhaundirik lortzen ez zutenak penaz gelditzen ziren.

Bazkaria etxean egiten zen. Ez zegoen kanpoan bazkaltzeko ohiturarik. Hori bai, bazkaldu orduko neskatila-mutikoak denak takarraran kalera, poltsikoko diruak karamelotan gastatu eta osterera ere buruhaundien aurrean ibiltzeko gertu zeuden.

Arratsaldean zezena egoten zen. Ostean denak afaltzera etxera joaten ziren, tripa ondo bete eta gaueko dantzaldirako indarrak hartzeko.

Goiko argazkia orain 32 urte inguru ateratakoa da. Andramaixetako hirugarren egunean txanoak eta uretako pistolak erostea bururatu zitzaizen argazkiko neska-mutilei (ohiturak oraindik jarraitzen du). Koadrila giroa ez zen falta hirugarren egunean.

Goian: **Pablo Etxebarriarteun, Jose Manuel Erlaiz, Luis M^a Otxoa, Begoña Urzelai, Ricardo (Madrilekoa), Jesus Iturbe, Lurdes Uralde, Jesus M^a Andres.**

Behean: **Luis del Teso, Pedro Jose Urzelai, Juan Antonio Rodrig ez, Jesus Aranbarri, Jesus M^a Arrese, Iñaki Lizarralde, Jose Ramon Kintanilla.**

Mondraueko banda, soinua, barkileroa, buruhaundiak...

ARETXABALETAKO INDUSTRIALDEA, S. A.

“ARINSA”

Basabe Poligonoa “EO-10”

Tfnoa: 79 62 80

ARETXABALETA (Gipuzkoa)

OSKAR

HARATEGIA

Loramendi, 1

☎ 79 71 69

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27

Tfnoa: 77 11 75

ARETXABALETA

Andramaixak pasatu ziren...



M.J. Aretxaga

...eta oporrek gehienoi behintzat bukatu zaizkigu, hau penie; atzera begira jarrita berriz Andra Maixetako nobedade eta kontuak datozkit burura.

Alkateak hitzaldi dotorea bota zigun jaiei hasiera emateko, baina lastimie ezer ez genion entzun, datorren urterako soinu teknikariak saia daitezela hobetzen. Aurten ume eta gaztetxoek ez daukate keizterik egunero gaztelu puzgarriak, Kukubiltxo, piratak (bai guapoak, eh ???) eta marrazki lehiaketa. Bertan irabazlea **Igor Olalde** izan zen. Txalogarria gainera gazteen partaidetza haundia. Nagusiak ordea marmarrean ibili dira eurentzat ezer gutxi egon dela eta, herri kirolen ikuskizuniki ere ez baitzieten jarri. Beharbada horregatik **Joakin Lizarralde** umeen jolas lekura joan eta zezen mekanikoan ibili zitzaigun. Hori estilue Joakin!!!

Argazkiren batean oraindik agertuko zara. Asko poztu ninduen suzko erruerak euskal enpresa batetatik zetoze jakiteak, baina ikusi ondoren pobre xamarrek izan zirela aitortu behar dut. Zer, diru gutxi?. Aurten berrikuntzarik haundiena gauetako ekintzak izan ziren: tango ikuskizuna eta Baron Rojo (ze dotore abestu zuen **Salvak**) eta Rakotoren kontzertua. Nik hiruretan egoteko zortea izan nuen eta bata bestea baino politoago egon zirela esan behar; pena da ordea, Baron Rojori hain publizitate haundia egitea eta Rakoto programan justu-justu aipatzea, jende asko ez baitzen enteratu eta kontzertu zoragarria galdu zuen.

Herri bazkaria ere berezi xamarra izan zen, norberak eraman baitzuen bazkaria (datorren urterako mahai gehiago, mesedez) baina oso ondo pasatu genuen, giro politean; ondoren gainera, 18 bat neska autotxokietan umeak letxe ibili ginen. Haiek bai egunek...

Bueno eta jaixetan (edo oporretan) sortu ziren parejatxoei zorianak.

Zorionak baita **Joseba Larrinagari** ere, zilarrezko domina maratoian eta 5. postua 5000 metrotan. Joseba, onena zara!

Bukatzeko, gure agurrik maitekor eta beroena **Mireni**, lankide eta lagunari, hemendik joan bazara ere beti gure artean sentituko zaitugu.

Nerea Euskerajatorregi-ren ibilerak



Edaten dogu → Kontestu honetan TXARTO (Ondo maiztasuna adierazteko)

Edango dogu → ONDO

Marrazkiak: Mikel Arroiabe

loramendi
eusquera elkartea



Susana Blanco Aguilero

“Aurtengo tabernako giroa askoz ere diskotekeroagoa izan da”



Orain dela 8 urte ekin zen Susana Izotz tabernan lanetan. Gustoko du bere lana eta momentu honetan ez luke beste bategatik aldatuko.

Jaien ostean berarekin izan gara jaietako giroa barraren beste aldetik nola ikusi duen galdetzeko.

• Zer moduz joan dira jaiak?

Oso ondo. Lan eta lan ibili gara. Eskerrak aurten txosnak jarri direna eta horrek lasaitasuna eman digu.

• Zelako giroa ikusi duzu barra barrutik?

Oso ona. Gure herrian giroa jartzen dutenak bertakoak dira. Jaietan dantzan egitea gustatzen zaigu herriarroi.

• Zer edan da gehien?

Zerbeza, kalimotxo eta baita kubata eta caciquea ere.

• Jaietan asko edaten da?

Bai, gehiegi. Jendeak bukaeran edatearren eraten du. Askotan eskatu eta basoa beteta uzten dute barran.

Kanpoan zaudela ez zara konturatzen zenbat edaten den, baina barra barrutik bai.

• Nola ligatzen du jendeak jaietan?

Ez naiz konturatzen, lan eta lan ibiltzen naiz eta.

• Jaietan barratik kanpora ibili zara?

Ez. Baron Rojoren bi abesti ikusi nituen bakarrik, bestela lanean egon naiz.

• Eta orokorrean jaiak zer iruditu zaizkizu?

Kontzertua oso arrakastatsua izan da. Askotan musika taldeak ekartzen dira eta jendea ez da joaten ikustera.

• Zein izan da jaietan egun gogorrena?

Bezpera eta bigarren eguna, beste biak lasaiagoak izan dira. Urkorentzat gogorrena azken egunean tabernan bota zuten uruna batzea izan zen.

• Zein izan da udako abestia?

Aurten beste urte batzutan baino musika diskotekero gehiago jarri dugu, “El venado, “Seré un pringado”... Jendeari dantzan egitea gustatzen zaio.

• Noiztik herrian parrandarik bota barik?

Andramari osteko eguakotxean bota nuen azkena.

• Zer egiten duzu denbora librean?

Euskeraz ikasi. Goizean eta gauean tabernan lan egiten dut.

• Zure afizioak?

Motorrak, mountain bike-a, futbola...

• Errealeko jarraitzaile amorratua zara. Zein jokalarik duzu gustokoen?

Asko gustatzen zaizkit, Aranzabal, Idiakez, Kovacevic...

• Zein musika mota gustatzen zaizu?

Heavy-a. Baina tabernan denetik jarri behar da.



KILOMETROAK

Lehiaketa

Aurtengo kilometroak jaia Elgoibarren ospatuko da urriaren 6an. Aretxagazetak ere parte hartu gura izan du kilometroak jaiari laguntzen. Horretarako ondorengo lehiaketa proposatzen dugu. Kilometroak jaiaren logotipoa aldizkarian nonbait ezkutatu dugu. Aurkitu eta zein orrialdetan dagoen adierazi eta gure bulegora bidali erantzuna. (kultur etxean dagoen buzoira edo 151 postakutxatilara). Asmatzen duzuenon artean, 3 pertsona aterako dira irabazle, KILOMETROAK 96k salmentan duen materiala erosteko, 2.000 pezetako balioa duten agiri bana emango zaie.

Animatu eta parte hartu!!!

Hauxe da logotipoa, ea topatzen duzun



Zein orrialdetan dago
KILOMETROAK 96
jaiaren logotipoa?

Erantzuna:.....

Izena:.....

Kalea:.....

Tfnoa:.....

BR Amaia-Berri, S. L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

BERGARA



San Martin jaiak

Irailak 8

XXXI. SAN MARTIN TXIRRINDULARI LEHIAKETA

Goizeko 9etan hasita.

Irailak 13 eguakotxa

BIKOTEEN DANTZA ASKATUKO XII. TXAPELKETA

Gaueko 10,30etan udal pilotalekuan. Moises Azpiazuren oroimenez.

Irailaren 14tik 20ra

XAKE ASTEA

ARRASATE



Urriak 11

**"Gazteak eta Intsumisioa"
VII. argazki lehiaketa**

Arrasateko Udaleko Gazte Zerbitzua eta ASA argazki elkarteak antolatu du "Gazteak eta intsumisioa" argazki lehiaketa. Bi modalitate, koloretan eta zuribeltzean. Gaia: "Gazteak eta intsumisioa". Lanak aurkezteko epea urriaren 11. Informazio gehiago Arrasateko gazte bulegoan. Telefona: 77 00 65.

LEINTZ GATZAGA

Irailak 6 eguakotxa

Arratsaldeko 6etan, eskila emanaldia eta etxalferoz jaien hasiera. Gaueko 12etan, dantzaldia **TRABUKO** taldeak alaituta.

Irailak 7 zapatua

Goizeko 9etan txirrindulari lasterketa. Eguerdiko ordu 2,30etan herri bazkaria. Arratsaldeko 4,30etan **BRISKA TXAPELKETA**. Arratsaldeko 6etan pelota partidua. Gaueko 11etan bolo txapelketa. Gaueko 11,30etan **TRIKITIXA KONTRAIRO** eta **BASAJAUN** taldeekin gaupasa.

Irailak 8 domeka

Eguerdiko ordu 1,30etan, Herri kirolak (Harri jasotzea, ebaketa, trontzak, txinga eramatea, korrika). Arratsaldeko 4etan umeentzako parkea. Arratsaldeko 5etan mus txapelketa. Arratsaldeko 7etan bertsolariak: Mendiluze, Mendizabal, Peñagarikano. Gaueko 10etan, dantzaldia **ZIZKUITZ** txarangarekin.

Gatzako jaiak!

ARETXAZOKA

LANA

- Urtebeterako Alemanian Oper moduan lan egiteko neska gazte bat behar da. (Ez da beharrezkoa alemana jakitea). Telefona: 79 77 29.
- Idazkaritzan diplomatuak lanak ordenagailuz pasatuko nituzke. Tfnoa: 79 31 47.
- Euskeraz, ingelesez, gaztelaraz eta beste hizkuntza batzuetan ipuin pertsonalizatuak idazten dira. Tfnoa: 79 47 54.

- Emakume euskalduna behar da umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Telefona: 77 14 31. Deitu arratsaldez 8,30etatik 9,30etara.

ETXEBIZITZA

- Apartamentu bat salgai dago Eskoriatzan. Telefona: 74 01 17
- Pisu bat salgai. 83 m² ditu eta jantzia. Solohaundi kaleko 25. zenbakian. (3. pisua eskuma). Telefona: 79 45 31.

- Garaje bat salgai dago Murubide kaleko 15. zenbakian. Telefona: 77 00 97.

- Aretxabaletan pisu bat alokatu gura nuke. Telefona: 77 04 58 (Erantzungailuak erantzungo du)

- Pisia salgai dago Durana kaleko 33. zenbakian (3. solairua eskuma). Telefona 79 64 93. (Eguerdian eta arratsaldean).

- 3 neska euskaldunek pertsona bat behar dute Madrilen pisua osatzeko, ekainetik aurrera. Tfnoa: (91) 4043838

- 82 m²-ko lokala salgai. Hiru horma kaleruntza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi 10ean dago. Telefona: 79 01 17

Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali Kultur etxean dagoen buzoira edo eta deitu 79 01 05 telefonora.



**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

Irailak 1 domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Arlaban-Legutiano-
Barazar-Legutiano-Landa-
Aretxabaleta- 60 Km.

Irailak 2 astelehena

ARANTZAZURA PEREGRINAZIOA

Irailak 6, 7, 8

ANDRA MARI JAIK ARIENTZAN

Irailak 8 domeka

KURTZEBARRIKO EGUNA

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Eskoriatza-Arrasate-
Oñati-Legazpi-Descarga-Bergara-
Aretxabaleta. 64 Km.

Irailak 15 domeka

ZARAIA MENDI TALDEA

Zaraia M. T. **Besaidera** egingo du
irteera.

**Beinke-Loramendi
dantza ikastaroa**

San Migeletarako prestatzeko.
Astelehen eta eguakotxetan
emango da, arratsaldeko 8etatik
9ak arte.

Apuntatzeko edo berri gehiago
izateko deitu edo etorri

Loramendi elkartera (telefonoa 77
09 70). Izena ematean 500 pezeta
ordaindu behar da.

Aurten ez utzi aukera galtzen eta
animatu.

Aretxabaleta


- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotox 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkartea 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murruxio M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzabarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99
- Ludoteka 79 05 81
- Musika Eskola 79 36 50
- Ortzadar 79 01 84
- Aretxagazeta 79 01 05

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 77 91 06
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 77 10 43
- SOS Deiak 088



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola 1 8 pabiloia
ARRASATE

Tfnoa: 79 62 18/ Fax: 77 11 30

**JOSU
HARATEGIA**

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETAKO



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28

ARETXABALETAKO

ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Truke Operazioa


Amuebladora Mondragonesa

EKARRI IEZAIGUZU
KOLTXOI ZAHARRA...



...ETA 10.000 PEZETA
ARTEKO BEHERAPENA
EGINGO DIZUGU ZURE
ATSEDEN SISTEMA BERRIAN

FLEX



Eta loa kenduko
ez dizuten prezioak
zatoz galdetu!



grupo



Amuebladora
Mondragonesa

a. eme. interiores, Garibai, 9 ARRASATE
centro hogar muebles, Zigarrola, 1 ARRASATE